



GOVERNANTA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNU SAILA
Funtzio Publikoko Sailburuordetza
Lan Harremanen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PUBLICA Y AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Función Pública
Dirección de Relaciones Laborales

LANA ETA FAMILIA BATERAGARRI EGITEKO NEURRIEI ETA ALARMA-EGOERA AMAITU ONDOREN OSASUNA ZAINTEKO NEURRIEI BURUZKO AKORDIOA

Alarma-egoera amaituta, eta zenbait kolektibo espezifikok egoera epidemiologikoa dela-eta mantentzen jarrai dezaketen premiak kontuan hartuta, honako neurri hauek proposatzen dira:

1. Lana eta familia bateragarri egiteko neurriak:

- Lan Harremanen Zuzendaritzaren maiatzaren 7ko Zirkularraren lehenengo puntuan ezarritakoaren arabera, ikastetxeen itxierak eragindako adingabeak zaintzeko nahitaezko eginbeharretarako baimena duten langileek egoera horretan jarraituko dute ikasturtea hasi arte (ziurrenik, irailaren 7ra arte). Baimen hori aplikatuko zaie, halaber, Haurreskolen itxierak eragiten dien langileei, bai eta ikastetxea ixteak eragiten ez dien baina eskolatu gabeko adingabe bat ardurapean duten langileei ere.
- Lan Harremanen Zuzendaritzaren maiatzaren 7ko Zirkularraren bigarren puntuan ezarritakoaren arabera mendekotasuna duten adinekoak beren kargura izan eta beraiekin bizi diren langileek, egoera horretan jarraituko dute 2020ko irailaren 7ra arte.
- Irailaren 27ra arte (udako ordutegiaren bukaera) mantenduko da Lan Harremanen Zuzendaritzaren maiatzaren 7ko Zirkularraren seigarren atalaren bidez hartutako ordutegi-malgutasuna: "Akordio arautzailean eta aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jasotako malgutasunei 7:30etik aurrera sartzeko aukera gehitzen zaie".

2. Osasuna zaintzeko neurriak:



- Maiatzaren 7ko zirkular horretako hirugarren atalaren arabera sentikortzat kalifikatutako langileek, Administrazio Orokorreko Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak horretarako ezarritako arrisku-mailaren arabera sailkatuta (3. eta 4. mailak), aurrez aurrekoak ez diren lanetan jarraituko dute 2020ko irailaren 7ra arte, baina lan-arriskuen prebentziorako zerbitzuak berrikusi ahal izango du arrisku-mailaren sailkapen hori.

3. Laguntza-neurri operatiboak mantentzeko neurriak:

- Funtzio publikoko sailburuordearen 2020ko martxoaren 11ko Ebazpenari atxikitako langileek egoera horretan jarraituko dute, **telelanaren** bidez modalitate ez-presentzialean zerbitzuak ematea salbuespenez luzatzen duena, 2020ko otsailaren 21eko deialdia indarrean jarri arte. Hala ere, 2019ko ebazpen originaleko lanpostuan egotearen/ez egotearen kadentziari helduko diote berriro.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 19a

Administrazioaren izenean:

 Izaskun Urien Azpitarte Lan Harremanen Zuzendaria	 Juan M. Barasorda Goicoechea Funtzio Publikoko Zuzendaria
--	---

Erakunde sindikalen izenean:

ELA	LAB
